


# FESTIVAL GUTUN ZURIA

**Apirilaren 15ra 17tik**  
Del 15 al 27 de abril

Aula de Cultura de bbk (Elcano 20) y BilboRock

**hó**

Alhóndiga Bilbao



Bilbotar agurgarria,

Nahiz eta oraindik ez ditudan nire ateak zabaldu, hartuko nauten herritarrengana hurbildu nahi dut, beraientzat sortu eta diseinatu bainaute. Bilboren erdi-erdian, espazio bat hasi da taupadaka, eta, 2009. urtearen amaierara arte ateak zabalduko ez ditudan arren, alde zuzenetik ezagutu nahi zaitut eta zuek ere ni deskubritzea nahi dut. Hori dela eta, **Gutun Zuria** Jaialdian parte hartzera gonbidatu nahi zaitut. Literatur jaialdi hau Bilbon izango da apiril honetan, eta, bertan, egileen arteko **eztabaidetan**, **erakusketetan**, pelikulen **proiektzioetan**, **lehiaketetan**, **irakurketa antzeztuetan**, **musikan**, **tailerretan**... parte hartu ahal izango duzu, beti ere, gutunak oinarri hartuta.

Nork ez ditu, noizbait, bere sentimendurik sakon eta barru-barrukoak gutun batean islatu? Ni orain ari naiz egiten, parte har dezazun gonbidatzeko. Aukera bikaina izango litzateke elkar eza-gutzeko, deskubritzeko eta garai guztietako gutun-literaturan murgiltzeko.

Zain izango nauzu, eta, bitartean, taupadaka jarraituko dut.

**Alhóndiga** Bilbao

# GUTUN ZURIA: EUSKAL IDAZLEEN GUTUNAK ERAKUSKETA

Ramón de Basterrak mesederen bat eskatzeko idatzi zion Unamunori, eta **Unamuno** Bilbon zuen lagun handietako batekin, **Leopoldo Gutierrez Abascalekin**, jarri zen harremanetan, bizi zuen krisi erlijioso larriaren gaineko gorabeheren berri emateko. **Juan Larreak** neskatoekin dituen harremanez hitz egingo dio **Gerardo Diego** lagun-minari, eta, handik urte batzuetara, gutun latz bat bidaliko dio, Gerra Zibilean Frankoren alde egiteagatik. Hain garrantzitsuak izan ziren Gerra osteko belaunaldia-arentzat, **Blas de Otero** eta **Gabriel Celayaren** arteko adiskidetasuna honela hasi zen, gutun bidez.

"Gutun Zuria: Euskal idazleen gutunak" erakusketa honen helburua da pilula txikietan gordetzea gutunetako paperetan zabalitzen den intimitatearen eta proiektio publikoaren –egilearen barruko anbizioa, edo ez hainbeste– arteko truke arin hori. Erakusketa honetan, gutunak eta beraien egileak beste kultur erakustaldi batzuekin nahasian ageriko dira.

bbk-ren Kultur Aretoa (Elcano 20)

Jendearentzako ordutegia:

Astelehenetik ostiralera, 12:30etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

Larunbatetan, 9:30etatik 14:00etara eta 15:30etatik 20:00etara.

Igandeetan, 9:30etatik 13:30etara.

Sarrera dohainik

"Gutun Zuria: Euskal idazleen gutunak" erakusketa Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen ardurapean egongo da.

## Osteguna, apirilak 17

2007ko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Sariaren irabazle **Miren Agur Meabe** idazleak topaketa bat izango du Bilboko ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleekin.

## Ostirala, apirilak 18

2007ko Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionalaren irabazle **Jordi Sierra i Fabra** idazleak topaketa bat izango du Bilboko ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleekin.

Ikastetxeentzako ordutegia:

Astelehenetik ostiralera, 09:30etik 12:30era eta 15:30etik 17:00etara.

# LITERATURARI BURUZKO EZTABAIDAK

Nazioartean ospea daukaten egileak bilduko dira Bilbon, herritarrekin topaketa bat egiteko.

## Asteazkena 16

19:30 Eztabaida **Vicente Molina Foix** idazlearen eta Ubik Europa kultur atariaren koordinatzailea den **Ludovic Assématen** artean

## Osteguna 17

19:30 Eztabaida **Costas Tsoclis** eskultore greziarraren eta EHUKo irakasle eta arte-kritikari **Xabier Sáenz de Gorbearen** artean

## Ostirala 18

19:30 Eztabaida **Edo Popović** idazle kroaziarraren eta El País egunkariak Euskadin duen delegatu **Juan María Gastacaren** artean

## Larunbata 19

11:00-12:00 "Nire gutun gogokoenaren" irakurketa. **Pedro Ugarte**, **Espido Freire**, **Juan Bas** eta **Toti Martínez de Lezea** idazleek eta **Ana Urrutia** (ETB) **Jon Uriarte** (Punto Radio Madrid), **Begoña Marañoñ** (Radio Bilbao-Cadena Ser) eta **Pedro García Larragán** (Radio Euskadi) kazetariak irakurriko dituzte gutunak.

12:00 Eztabaida **Jesús Ferrero** idazlearen eta Punto Radio Bilbao-ko zuzendari **Almudena Cachoren** artean.

### \* Sarrera doan

Gonbidapenak apirilaren 7tik aurrera jaso behar dira bbk-ren Kultur Aretoan (Elcano 20), ordutegi honetan: goizez, 10:00etatik 13:30era eta arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara. Bi sarrera emango dira pertsona bakoitzeko.

\*\* Eztabaida guztiak bbk-ren Kultur Aretoan izango dira.

# ZIKLO ZINEMATOGRAFIKOA GUTUN-ARLOA ZINEMATOGRAFIAN

## Azteazkena 16

21:00 -22:30 h. Carta de una desconocida (Max Ophüls, 1948)

## Osteguna 17

21:00 -22:30 Carta a tres esposas (Joseph L. Mankiewicz, 1949)

## Ostirala 18

21:00 -22:30 Nueve cartas a Berta (Basilio M. Patino, 1966)

## Larunbata 19

19:00 -22:30 Sexo, mentiras y cintas de vídeo (Steven Soderbergh, 1989)  
Copycat (Jon Amiel, 1995)

## Astelehena 21

20:00 -21:30 Estado de sitio (Edward Zwick, 1998)

## Asteartea 22

20:00 -21:30 El coronel no tiene quién le escriba (Arturo Ripstein, 1999)

## Osteguna 24

20:00 -21:30 El mensajero (Joseph Losey, 1970)

## Ostirala 25

19:00 -22:30 Balseros (Carles Bosch /Josep Mª Doménech, 2002)  
Closer (Mike Nichols, 2004)

## Larunbata 26

19:00 -22:30 Three Times (Hou Hsiao-hsien, 2005)  
Cartas de Iwo Jima (Clint Eastwood, 2006)

\* Sarrera doan. bbk-ren Kultur Aretoa (Elcano 20)

# “MARGUERITE YOURCENAR” TAILERRA

Alhóndiga Bilbaok, UPV/EHuko Esperientzia Gelekin batera, Marguerite Yourcenar idazle frantziar ospetsuaren gutunei buruzko tailerra egingo du, gutunen bitartez idazlearen lana eta idazlea bera ezagutzeko asmoarekin. Tailerra Tourseko Unibertsitateko hispanista eta katedraduna eta Société Internationale d' Études Yourcenariennes elkarteko presidenteordea den **Jean Pierre Castellan** ik emango du.

## Asteartea 15

18:00 - 19:30 UPV/EHuko Esperientzia Gelak

## Osteguna 17

18:00 - 19:30 UPV/EHuko Esperientzia Gelak

# INTERNET-CAFÉ KONTZERTUA

**Mikel Urdangarin** musikariak, **Kirmen Uribe** idazlearen eta **Nik Bitchiashvili** biolin-jolearen laguntzaz, literatur kontzertu bat eskainiko du; izan ere, kontzertuan musika eta gutunen eta lagunen arteko bidalitako e-mailen irakurketa uztartuko dira.

## Igandea 20

20:00

BilboRock

Sarrerak: 5 euro, bbkren salmenta-guneetan



www.alhondigabilbao.com

## SARRERA DOAN ENTRADA LIBRE

Gonbidapenak bbk-ren Kultur Aretoan jaso behar dira (Elcano 20), ordutegi honetan: Goizez, 10:00etatik 13:30era, eta, arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara

Recogida de invitaciones en el Aula de Cultura bbk (Elcano 20) en horario de: Mañana 10:00 - 13:30 Tarde 17:00 - 20:00

\* **Bi sarrera emango dira pertsona bakoitzeko** Se entregarán dos entradas por persona

LAGUNTZAILE NAGUSIA COLABORADOR PRINCIPAL



LAGUNTZAILEAK COLABORADORES



agoranet grupo de comunicación



ELCORREO